

6.GAIA (6.2)

LANA ETA EKONOMIA SOBITAR BATASUNEAN, 1945. URTERA ARTE

XX.mendearen hasieran, Errusia 140 milioi biztanlez osatutako nazio erraldoi bat zen. Ekonomia nekazaritzan oinarritzen zen eta gunee industrial batzuk zeuden. Sistema soziala eta politikoa hiru zutabetan oinarritzen zen:

- Noblezia, lurreko jabea.
- Administrazioaren eta armadaren goi-karguak
- -Monarkia absolutista
- -Eliza ortodoxoa

Alderdi politikoak debekatuta egon arren intelektualen elite batzuk tsarismo absolutistaren aurka antolatu ziren: Anarkistak (1879). 1898 Errusiako langileen alderdia(marxistak). 1903an bi fakzio banatu ziren partidu honetan:

- Mentxebikeak: iraultza burgesen aldekoak, iraultza sozialistaren aurretik.
- Boltxebikeak: proletarioaren diktaduraren aldekoak.

1) SOBIETAR BATASUNERAKO BIDEA

1917ko Sobietar Iraultzaren aurretik beste iraultza bat egon zen 1905. urtean. Iraultza horren testuinguruari dagokionez, 1904. Urtean krisi ekonomikoa izan zen eta nekazaritza erreforma baten saiakera izan zen baina huts egin zuten. Gainera, 1905, urtean gerra Japoniarekin izan zen eta porrotaren eraginez lurraldeak galdu ziren.

Tsarraren onarpenaren beherakadak gataska sozialak ekarri zituen. 1905eko urtarrilean 200000 langile baino gehiago manifestatu ziren neguko jauregian langile industrialentzako hobekuntzak eskatuz. Tsarren guardiak manifestazioaren aurka tiro egin zuten eta 200 hildako eta 800 zauritu baino gehiago egon ziren, igande odoltsua deitzen zaio egun horri. Bertan HASI ZEN IRAULTZA.

Krisia eta tsarraren kontrako iritzien gorakada mugimendu iraultzaileak indartu zituen. 1905. Urtean boltxebikeak SVIET-a sortu zuten (langile asanblada handiak). Urte hauetan desadostasuna armadan ere agertu zen eta sektore batzuk tsarraren autoritatea zalantzan jartzen hasi ziren, matxinadak izan ziren. Egoera ikusiz, Tsarrak erreforma batzuk iragarri zituen giza tentsioak lasaitzeko: eskubide zibilak (adierazpen askatasuna), sistema politiko berri baten sorrera (parlamentua- Duma), nekazaritzan erreforma baten proiektua. Baina agindutako aldaketak ez ziren burutu: nekazaritzako erreforma partzialki burutu bazen ere, laboratzeko gai ziren lurren erdia baino gehiago esku gutxietan jarraitzen zuten, eskubide berriak bai baina errepresio politikoa Soviet-en kontra oso handia izan zen eta preso politikoak eta Siberiara deportatuak egon ziren.

Egoera 1MG hasierarekin okerragotu zen. Errusiaren porrotak 1.MGan hildako askorekin eta lurraldeen gatazkarekin zailtasun ekonomikoak eta ezinegon sozial larriak sortarazi zituen. 1917ko otsailak 23an greba orokorra egon zen San Petesburgon. Greba zapaltzera bidalitako tropak manifestazioarekin batu egin ziren. Iraultzaileak San Petersburgokoa Sovietet-a berriz antolatu zuten, tsarrak laguntzarik gabe geratu zen eta abdikatu zuen. Behin behineko gobernuak gerrarekin jarraitzea eta nekazaritzan erreformak atzeratzea erabaki zuen. Krisi berri bat sortu zen, boltxebikeak, Lenninen bidez Apirileko tesiak aurkezten dituzte: gerrari

uko, behin-behineko gobernuarekin hautsi, aristokraziari eta elizari jabetza kendu. Urriaren 24ean Boltxebikeak armadako sektore batzuen laguntzarekin Neguko Jauregia berenganatu zuten eta behin behineko gobernuaren atxiloteta izan zen. Lenin eta Trostki gobernu berri bat eratu zuten. Errusia 1. Mundu Gerratik irten eta gero gerra zibil bat hasi zen. Armada gorria(boltxebikeak trotsky gidatuak) eta Armada Zuria (tsarismoaren aldeko tropak, kanpo laguntzarekin). Gerra 1921ean bukatuko da, boltxebikeen garaipenarekin. Hor hasi zen SOBIETAR BATASUNAREN HASIERA . Leninek Sobietar Batasunaren lehenengo pausuak gidatuko ditu bere heriotza ailegatu arte, bere ordezkaria barne gatazka ugari eta gero Stalin izan zen.

2) NEKAZARITZAKO KOLEKTIBIZAZIOA

a)1917 eta 1918 urteen artean, talde boltxebikeak lur batzuk okupatu zuten, nekazari pobreei lurren jabetasuna emanaz lurren jabe txikiak ziren nekazari ugari sortu zen, kulak.

b)1918. urtean, eta kontrolatzen zuen lurraldeetan Leninek lurraren jabetza jabe handienei kentzen hasi zen masiboki: lurraldearen nazionalizazioa (lurra estatuarentzat), estatuak nekazariari lur horiek lantzeko eskubidea emango die eta lur horien esplotazioa bi sistema desberdinen bidez antolatuko da: kolijos eta sovjos.

Kolijos(landetxe kolektiboak): hedadura handiko lursailak ziren eta nekazariak lantzen zituzten, antolakuntza: nekazari kooperatibak, estatuarekin lotuta. Estatuak lur gehien jabea zen eta lurraldeen esplotazio sistema erabiltzen zuen eta kooperatibei makinaria modernoa ematen zien produkzioa areagotzeko. Nekazariari bi erataro ordaintzen zitzaizkien: kolijosaren produkzioaren zati txiki bat emanaz eta soldata batekin lan orduen eta produktibitatearen arabera. Nekazariaren eskubideak: ekoizpen ondasunen jabe izatea, lurzain bat nahi bezala esplotatzeko, abeltzaintza txikia banakako erabilerarako eta kolijosaren espazioan zegoen etxeetan bizitzeko eskubidea. Nekazariaren beharrak: estatuak erabakitzen zuen ekoizpen kuota bat estatuari eman, landetxetan lan egiten estatuak ezartzen zuen produkzio sistema jarraituz eta estatuak eskatzen zuen produktuak produzituz.

Sovjos-ak (landetxe Sobietarrak): ez zeuden kooperatiboko antolatuak, landetxeen kudeaketaren arlo guztiak estatuak kontrolatzen zituen. Nekazariak lurra lantzen zuten soldata baten truke, besterik gabe. Nekazariak ez zuten lur esleituak bere kabuz lantzeko eskubiderik ezta jabetza pribatuko nekazari tresnak izateko eskubiderik. Produkzio modu hau kolonizazio berriko lurraldeetan nagusitu zen. Estatuak nahiago izan zuten sistema honek, nekazariaren gaineko kontrol estatuakoa izateko aukera ematen baitzuen.

Sobietar batasunaren hiru nekazari sistemen garapena(kulak,kolijos,sovjos): Leninek eratu zuen sistemarekin, nekazaritzan kolektibizatu behar zen lur guztiaren %20a guztia izan behar zuen. Baina gero Stalin Lenninen proiektua aldatu zuen ahalik eta lur gehien kolektibizatzen saiatuz. Kolektibizazioa 1928a eta gero kulakak lurra estropiatzen hasi zen eta erresistentzia handia jarri zen. Gatazkak jositako lehen fase hau eta gero Estatuak kolektibizazio gradualko bat egitea erabaki zuen Estatuaren kontrako iraultzaren arriskua saihesteko. Prozesu kolektibizatzaileak luzea izan zen, baina eraginkorra. 1931an lurralde kolektibizatuak landatutako lur totalaren %52a zen eta handituz joan zen azkenean 1940an %96,9a izan arte.

Sobietar propagandak nekazaritza lanaren beharra defendatu zuen eta sobietar nekazarien birtuteak eta garrantzia goraipatzen zuen (elkarrekin lan egiteko beharra, lana, sobietar batasunean ahalmena handitzeko beharra). Praktikan sobietar batasunak landutako lur osotara hedatu zuen bere kontrola, eta zerga altuen bidez presio handia ezarri zuen nekazaritzan, modernizazio industrial eta nekazal modernizazioa garatzeko gai izateko. Hasieran, industrializatzeko behar zen kapitalaren zati garrantzitsu bat nekazaritzaren produktuen esportazioetatik lortu zen produkzio tasa oso altuak ezarriz, horrek nekazarien bizi baldintza gogorak ekarri zituen, baina sozialismoaren garaipenerako egin beharreko sakrifizioa zela zioten. 1928 eta 1935 urteetan artean nekazaritzak garapen industrialaren trantsizioa jasan zuen eta horrekin batera, oinarrizko produktuen murrizketak. 1933an, uzta txar bat izan zen, Sobietar Batasunak ez zituen kuotak jaitsi eta gosete larria egon zen, 3 eta 5 milioi arteko hildako egon ziren eta gehienak nekazal sektorekoak ziren.

3) SOBIETAR PLANGINTZA INDUSTRIALA: NEPa ETA BOST URTEKO PLANAK

a) Politika ekonomiko berria:

Gerra ekonomiatik Sobietar ekonomiara ezarri zen trantsiziozko sistema bat izan zen, Gerraosteko krisia gainditu nahi zuen eta baita nekazariak bai langile industrialak produkzioan inplikatu ere. Nola? Nekazaritzan: gerra fasean egiten ziren konkista zioekin bukatu eta horren ordez zerga txikiak biltzen hasi ziren. Zerga horiek ordaindu ostean nekazariak gainontzeko uzta merkaturatzeko eskubidea zeukaten, kapitalismoaren ezaugarri batzuk ezarri ziren modu behin behinekoan, produktibitatea suspertzeko. Industrian estatuak industria handiak kontrolatuko ditu, baina aldi berean industria txiki berrien sormena bultzatuko du, estatuaren kontrolatik at barne merkatu mugimenduak berpizteko. Kanpo inbertsiok jasotzean onartu zen behin behineko arlo industrial handiak indarberritzeko. NEParen ondorioak:

- Nekazaritzan: lurralde berrien labakitzea produkzioaren hazkundera ekarri zuen. Nekazariak bere produktuak merkaturatzeko zeukaten askatasuna lan egiteko motibazioa areagotu egin zuen, nekazaritzan errendimendu hobekak lortu ziren eta gerra faseko gose arazoa bukatu zen.
- Industrian: industria txikiak eta ertainen garapena eman zen kapitalismo partzialak lagunduta, industria handiak hazten eta modernizatzen hasi ziren atzerriko kapitalei nekazaritzako kuotei eta estatuaren produkzio pizgarriei esker.
- Gizartean: sistema komunista eta kapitalistaren arteko hibrido honek burgesia txiki bat sortu zuen, oposizioa industria handiko langileetan eta sobietar alderdi komunistaren sektore batzuetan.

1929.urtean: estatalizazioaren hasiera (bost urteko planak)

b) bost urteko plana:

1929tik aurrera Stanlin-ek NEParen antolakuntzari iko egin zion, Sobietar Batasunaren behin betiko eredu industrial ezarriz: plangintza eta zentralizazioa. Jarduera ekonomikoa bost ureko aldietan antolatuko zen. Bost urteko fase bakoitzean ingeniariak osatutako komisio bat (gosplan), burutu behar ziren gutxieneko objektibo ekonomikoak ezartzen zituen eta helburu hauek lortzeko bidea. Plangintza estalinista onen helburuak:

ekonomiaren arlo guztiak kontrolatu: nekazaritan kolektibizazioa eman eta industrian errendimenduak industriaren modernizazioaren eta hedapenen inbestitu. Dependentsia

teknologikoa bukatu egin zen, goi mailako teknikariak hezituz. Industria astuna garatu zen. Lehenengo bost urteko planen helburuak (1928-1933):

- Gehiengo lehentasuna industria astuna eta energetikoen garapena izan zen. Estatuarentzat garrantzitsuenak ziren arloetan, autarkia osoa lortu zen eta mundu kapitalistaren menpekotasunaren kontra. Nekazal kolektibizazioa garapen hau behar zituen kapitalak lortzeko erabili zen. Kontzentrazio industrial irakargarria burutu zen. Industria aria baztertu zen, garapen industrialak izan zen lehentasuna, biztanleriaren ongizate materialen gaintik, gabetasun hau gastu sozialarekin orekatu zen hezkuntza eta osasungintzan.

Bigarren bost urteko plana(1933-37)

- Ekoizpenaren egonkortzea ekarri zuen, eta industria eta nekazaritzaren arteko egoera orekatzea. Nekazaritzan nekazaritzako makineriaren sarrera produkzioa asko areagotu zen eta nekazarien bizi egoera asko hobetu zuen. Industrian produkzioa bultzatzeko teknika berriak ezarri ziren

Stanjanovismoa lan produktibitatearen handitzea, langileen beren eskumenean oinarrituta laboral, estatuari soldata hobekuntzak eskatzearen truke. Sobietar batasunak ofizialki sistema stanjanovistak bere industrian ezarri zuen, estatuak stajanovismoaren sorreraren propaganda ugaria egin zuen lan egiteko pasioan oinarritutako lan filosofia bat hedatu nahian. Lan industrialaren ekarpen orokorra 30eko hamarkadan, internazionalki gertatzen ari zen tentsio militarren igoeraren poderioz. Stanlinen lehentasuna armagintzaren industria garatzea bilakatu zen, munduari komunismoaren indar militarra erakutsiz komunismoaren etsaien kontraz defendatuz.

Bost urteko planaren ondorio nagusiak(1941a arte):

- Sobietar batasunak munduko hirugarren potentzia industrialak bilakatu zen eta munduko lehena hainbat sektore estrategikoetan.
- Industrian eta nekazaritzan ezarritako plangintza Stanlinistak erresistentziak eragin zituen sektore kaltetuetan. Kasu hauetan, Stalinen erantzuna bortitza izan zen, purgak egin zituen eta 2,7 milioi pertsona lan behartuetarako eremuetan lan egiten Sobietar Batasunaren produkzio industrialaren %2a zen, gutxigorabehera.
- Ideologiko eta propagandistikoki, Stanlinek filosofia berri bat hedatu zuen: langileak, haien lanaren bidez, Sobietar Batasuna handitzeko konpromisua zeukaten, Sobietar Batasunaren iraultzaren aurre pausoak langileen iraultzaren aurre pausoak baitziren. Doktrinatzek eskolen bidez egiten zen, lanak ondasun materiala eta morala ekartzen zuela irakatsiz. Bitartean, disidentzia sozial eta politikoak exekuzio eta deportazioekin erantzuten ziren.

4) POLITIKA SOZIALAK SOBIETAR BATASUNEAN

Sobietar Batasunaren lehenengo aseguru sozialak 30eko hamarkadan gauzatu ziren egonkortze ekonomikoaren ondoren. 1936ko konstituzioak, hazkunde ekonomiko handi baten kontestuak eginda, sobietar ongizate estatuaren oinarria izan zen. 119. Artikulua: Sobietar Batasunako herritarrek atsedena hartzeko eskubidea dute: asteen 6 eguneko eta egunean 7

orduko lanaldia. Soldatak oporretan ere ordaintzen ziren. 120. Artikulua: Sobietar Batasuneko herritarrek zahartzaroan laguntza ekonomikoa izateko eskubidea dute, baita gaixotasunean eta lan egiteko gaitasuna galtzean ere. Langileentzako gizarite segurantzaren garapena izan zen eta langileentzako debaldeko asistentzia medikoa. Gizarte onurak:

- Lan istripuak: soldataren portzentajetan oinarritutako bizitza osorako pentsioak. Debaldeko tratamenduak eta sendagaiak izateko eskubidea. Ezgaitasuna erabatekoa ez zenean, Estatuak lan berri bat eskaintzen zuen. Horrela, pentsio eta soldata bat kobratzeko aukera zegoen.
- Amatasuna: Amek haien soldata osoa mantentzen zuten amatasunaren epealdian (haurdunaldiaren bostgarren hilabetetik aurrera), eta urte bateko oporrak zeuzkaten erditu eta gero. Estatuak familiei dirua ematen zien zeukaten seme-alaba bakoitzeko, eta alokairu bereziki merkeak eskaintzen zuen familia ugariari, etxe egokietan. Estatuak haurtzaindegi ugari eraiki zuen, eta bertan seme-alabak saintzen zuten amek lan egiten zuten bitartean, bere soldataren %30aren truke
- Erretiroa: 60 urtetan (gizonak) eta 55 urtetan (emakumeak) ezarri zen. Familiak bost seme-alaba baino gehiago bazeukaten, emakumearen erretiroaren adina 5 urte aurreratzeko aukera zegoen (55urtetik 50urtera). Pentsioaren eskubidea izateko gizonak 25 urteko gutxienezko kotizazioak egin behar zituen (20 urtekoak, emakumeentzat). Hezkuntza militarra eta unibertsitatekoa kotizatzen zuen, baita ere. Pentsioa soldataren portzentajeen arabera kalkulatu zen. Behin erretirora ailegatzen zenean, lan egiten jarraitzeko aukera zegoen, lanorduen kopurua murriztuz.
- Gaixotasuna: Gaixotasuneko bajetan, langileek soldataren %100 jasotzen zuten pentsio gisa